

## Epaitegiak azken murrizketa legeztatu du, baina ez betirako

### ELAk ez du sententzia ontzat emango, eta gaurko baldintzak hobetzeko lan egingo du Nafarroako hitzarmenaren bidez

Auzitegi Gorenak 2010ean NIEk inposaturiko soldaten murrizketa legeztatu du bere azken sententzian, Nafarroako epaitegiek guztiz kontrako ebazpenak ondorioztatu zituzten arren. Egoerak azterketa sakon bat eskatzen du, Euskal Autonomia Erkidegoan aferak berak oso bestelako emaitza eman duelako, eta langileen baldintzei dagokienez hutsune asko sortu direlako.

Azken finean, Nafarroako Gobernuak, itunpeko patronalek eta SEPNAK (Irakaskuntza pribatuko sindikatu nagusia) adostutako itunak hankaz gora jarri du ikastoletarako negoziazio kolektiboa, eta itun horri esker 2010ean pairatutako murrizketak legeztatu dira orain, Gorenaren sententzian.

Gauzak horrela, ELAk Nafarroako ikastolen hitzarmenaren aldeko lanean

segituko du, eta 2008an ELAk sinatutakoaren bide beretik negoziatuko dugu. Beraz, alde biko akordioak ezinbestekoak dira, inposiziorik gabe. Orain bizi dugun egoera latza Nafarroako Gobernuaren politika tamalgarriaren eta NIEk bere kabuz hartutako erabakiaren ondorioa izan da: bat-

**Ikastolen langileek bere baldintzak negoziatu behar dituzte, Madriletik edo Iruñetik ezarritako murrizketak onartu gabe**

tak eta besteak Madriletik etorritako murrizketa inolako negoziatorik gabe inposatu dute. Beraz, hemendik aurrera hartuko diren akordioek aplikatzeko berme osoa eduki beharko dute.

Alabaina, NIEk kontrako bidea hartu nahi du, edozein arazoren aurrean, langileon lan-baldintzak eta soldatak alde biko murrizteko aukera izan nahi du langileekin ezer


adostu gabe, azken proposamen irakur dezakegun bezala.

Hainbat ikastolatan ditugun arazoei errotik aurre egin beharrean, egoera sozializatu eta

Nafarroako Gobernuarekin konfrontatu beharrean, arazoetan inolako erantzukizunik ez dugun langileengan ezarri nahi du erantzukizun nagusia eta murrizketen pisua. Langileok prest gaude arazoak dauden ikastoletan egoerari aurre egiteko eta beharrezko ikusten diren neurriak hartzeko, baina hauek ezin dira alde biko inposatu, adostuak izan behar dute.

ELAren ustez, lan baldintza orokorrak dauden bezala segitu behar dute hurrengo hitzarmena sinatu arte. Ez dugu ontzat eman behar Gorenaren sententziak dioena, eta datozen negoziaketetan egoerari buelta ematen saiatuko gara. Hala ere, ez dozente guztien aldeko neurria bultzatu behar dugu, hau da, 2009ko tauletara itzultzeko aukera.

Eta jakina, tokian tokiko ikastolaren plangintzan, langile batzordeak parte hartu behar du, sortzen diren beharrak konponbiderik egokiena denon artean aukeratzeko.



### Soldata defendatzea enplegua defendatzea da

**K**risia hasi zenetik eroste ahalmenaren %19 galdu dugu. Soldata defendatzea guretzat eta besteentzako enplegu gehiago da, langilearentzako duintasun handiagoa da, denona dena mantentzeko (osasuna, hezkuntza) zerga gehiago da. Gizarte Segurantzarako eta pentsioetarako kotizazio gehiago da. Soldatek gizartea sendotzen dute, ekonomia erreala bultzatzen eta ondorioz enplegua sortzen.



# UPN-PPk kendu diguna berreskuratu behar dugu

**Eroste ahalmenaren %20 galdu dugu, eta gure hitzarmena zein ikastola batzuen bideragarritasuna arriskuan daude**

**H**ego Euskal Herri honetan herri ekimena bezala Francoren diktadurapean sortu zen ikastolen sarea, arrazoi historiko, ekonomiko eta ideologikoengatik itunpeko sarea izaten jarraitzen du hainbeste urte pasata, eta langileon egoeraren segurtasun juridiko eza aspaldiko larriena da.

Espainako zein Hego Euskal Herriko gobernu desberdinek lan erreforma eta murrizketak ezarri dizkigute, eta horiekin batera lorpen historikoak galdu ditugu.

## ZER GENUEN?:

Bai Eusko Autonomia Erkidegoan bai Nafarroan ikastoletako langileok bagenuen gure hitzarmen propioa.

Nafarroako ikastola batzuen betiko egoera larria kontuan izanda ere, bertako hitzarmena

izateak, gainerako itunpeko eskoletako langileekin konparatuz baldintza hobekien ematen zizkigun:

- Soldata taulak langile publikoetakoak baino baxuagoak izanik, gainerako itunpeko ikastetxeetakoak baino altuagoak ziren.
- Gure lanaldia motzagoa zen.
- Baimenak, ikasteko erraztasunak eta beste hobekuntza sozialak nabariagoak ziren.

## ZER GALDU DUGU?:

Espainiako Gobernuak horretara behartu ez arren Patxi Lopez eta Sanz presidenteek 2010ean itunpeko irakaskuntzan ere murrizketak inposatu zizkiguten. Ezer ez zuten negoziatu nahi, ez gobernuak ez patronalek, inposatu egin ziguten.

Epaiketetara jo genuen, eta hasieran irabazi arren, Nafarroako Ikastolen kasuan Goreneari galdu dugu. Zergatik? Opupeko ikastetxeetan soilik ordezkariak duen SEPNAk itunpeko ikastetxeetan gehiengo absolutua duelako Nafarroako Itunpeko Irakaskuntzan eta 2010ean UPN eta Patronalarekin sinatu zuen murrizketa egiteko akordioaren baitan Gorenak ikastoletan ere murrizketak ezartzea legezkatat jo duelako. SEPNAk gehiengo izanik, guretzat ere aplikagarria dela akordio hori esan du Gorenak.

Gainera, 2012an Rajoyk ezarritako lan-erreformarekin gauza asko galdu ditugu, soldatak murriztu dizkigute eta defentsa kolektiboa kendu nahi digute:

## ELAri botoa ematea, Erregimenaren aurkako tresnarik egokiena da

**N**afarroan aspaldi agintean dagoen Erregimenak dena oso ongi lotuta dauka. Itunpeko irakaskuntzan eskola erlijiosoaren sarea eta ikastolen sarea ditugu. Gurean bagenuen hitzarmen propio bat. Baina guretzat ez da nahikoa izan. Horrela, UPNk kontrolatzen ditu negoziazio alde guztiak: gobernuak, patronala eta gehiengo duen sindikatua, SEPNA. Horrela nahi duena egiten du.

Itunpeko sare osoan SEPNAri gehiengo kendu eta gauzak aldatzen hasteko tresna bakarra ELA da eta horrek ikastoletan ere bere isla izan behar du.

## LEHEN

1. Negoziazio kolektiboak baldintzak hobetzen zituen, marko orokorretik enpresakora hurbiltzen ginen heinean.
2. Gutxiengoa zegoen: probintziako lan hitzarmena, urratu ezin zena.
3. Ultraaktibitatea zegoen: lan hitzarmenak irauten zuen hurrengoa sinatu arte.
4. Gutxiengo hori hobetzen ahal zen enpresako lan hitzarmenarekin (Nafarroako Aldizkari Ofizialean) eta baita enpresako itunekin ere (pribatuak).

## ORAIN

1. Enpresako lan hitzarmenak du aplikatzeko lehentasuna.
2. Ez dago gutxiengorik, lan hitzarmena aplikatzeari uzten ahal diote nahi dutenean.
3. 2013ko uztailaren 7an lan hitzarmenen ultraaktibitatea bukatu zen.
4. Lan baldintzen funtsezko aldaketa onartu ondoren: gutun bat bidali eta 15 egunetara enpresak soldata jaitsi eta lan jarduna igo dezake.



**ZER EGIN DU ELAK?**

ELA sindikatua Nafarroako hitzarmenaren sinatzailea da, eta murrizketen aurkako errekurtsioa aurkeztu zuen auzitegian. Nafarroako ikastoletako langileen ordezkariak kontuan hartuz, ELAk bat egin du LAB sindikatuak langileen defentsan burutu dituen ekimenekin.

Baina ondoko koadroan ikusi ahal den bezala, ELAk bere ekimena aurrera eraman ahal duenean langileen lan baldintzak defendatuagoak daude, bai dirusarien aldetik bai segurtasun juridikoaren aldetik.

	LANGILEEN EGOERA OKERRENETIK			HOBERENERA
	NAFARROAKO GIZARTE EKIMENEN IKASTETXEAK	NAFARROAKO IKASTOLAK	EAEko IKASTOLAK	EAEko GIZARTE EKIMENEN IKASTETXEAK
GEHIENGO SINDIKALA	SEPNA	LAB	LAB	ELA
HITZARMEN PROPIOA	EZ (Estatu mailakoa)	BAI (2010)	BAI (2009)	BAI (2009)
2010eko MURRIZKETA	BAI (gehi 2012koa)	BAI	BAI	BAI
EPAIKETA IRABAZITA	EZ (ezta aurkeztu ere)	EZ	BAI	BAI
DIRUA BERRESKURATUTA	EZ	EZ	2010 ordaindua Gainerakoa onartua, baina kuantifikatu gabe	2010, 2011 eta 2013 ordaindua. 2012 onartua eta kuantifikatua
MOBILIZAZIOAK	EZ	EZ	EZ	BAI (grebak)
PATRONALARI ETA GOBERNUARI PRESIOA	EZ	EZ	EZ (murrizketak langileen bizkar segitzeko aukera)	BAI (akordio loteslea)

## EAEko Gizarte Ekimeneko adibidea: Guk zergatik ez?

Ikusten dugunez, EAEko Gizarte Ekimeneko Sarean, ELAk gehiengo eta inizatiba izanik, jasaten ari garen arazoa ongi definitu eta honi aurre egin dio adorez.

Azken 25 urteetan sektoreko langileen aurka egindako erasorik larrienaren aurrean gaude eta honek erantzun sendoa izan du. Patronalek PPren lan eta negoziazio kolektiboaren erreforma azken muturreraino eramatea erabaki dute, EAEko hitzarmenaren negoziazio mahaia bertan behera utziz eta estatuko hitzarmena ezartzeko asmoa agertuz. Erabaki hau epaitegien aurrean salatua izan da, epaia gure aldekoa izanez.

**ELAREN JARDUERA:**

Baina ekintza sindikala izan da sektoreko patronalek 2010az geroztik ezartzen ari diren murrizketei aurre egiteko tresnarik eraginkorrena. Auzitegiek instantzia gorenetan langileen ordezkariak arrazoia eman diguten arren, patronalek bata bestearen atzetik etorri



diren epaiak betetzeari uko egin diote behin eta berriro. Honen aurrean ez dugu izan mobilizatzea beste biderik.

Gatazka oso sakona da, eta patronalen eta Eusko Jaurlaritzaren aurka mobilizazio sendo eta jarraiak egin ditugu gure aldarrikapenei eusteko, argi geratu dira itunpeko irakas-kuntzako langileen borrokatzeko prestutasuna.

Orain arte lortu duguna ez da makala: langileek murriztutako soldataren zati handi bat berreskuratu dute. Eta Hitzarmena berreskuratu eta lehenbailehen soldata bere

osotasunean kobratzeko akordioa oso aurreratua dago.

LAB EAEko ikastoletan eta Gizarte Ekimeneko ikastetxeetan mantentzen ari den jarrerak ordea aurrekari oso larria sortzen du Administrazioaren menpeko arloetako negoziazio kolektiboan, finantzazio nahikoa ez izateak justifikatu egingo bailuke hitzarmenaren debaluazioa. Hau dena beste arloetara eraman daiteke? edo soilik ikastoletan onar daitekeela uste du LABek? Hala balitz, zergatik onartzen ditu LABek ikastoletako langileentzat beste sektoreetan onartezinak liratekeen akordioak?





## LOMCEri ez! Nola gelditu?

Beste sindikatu eta hezkuntza-eragile batzuekin batera gida bat prestatu eta argitaratu dugu. Horren bidez tresnak eman eta proposamenak egin nahi ditugu LOMCEri aurre egin eta gure herrian behar eta nahi dugun hezkuntza sistema eraikitzen jarraitzeko. Irailetik aurrera ikastetxe guztietan banatzen ari gara. Gainera, aldarrikapen ekintza eta mobilizazioekin jarraitzeko asmoa dugu ikasturte berri honetan ere.

Egin nahi duguna egiteko oso garrantzitsua da aliantzak osatzea eta elkarlana indartzea bai familiekin, bai ikasleekin, baita gainerako hezkuntza-eragileekin ere. Zentzu honetan, azpimarratzekoa da zenbait ikastetxetan eta eskualdetan egiten ari den lana.

Hori da bidea, zidorrik ez dago.

## Sindikatu autonomo eta autofinantzatua


Lana zentroetan jendea antolatzea da, eta helburuari buruz informatzea eta kontzientziatzea:

Nafarroan Lan Hitzarmen gaurkotua behar dugu Ikastola guztietan aplikatuko dena eta Lan Erreformaren aurrean blindatua egongo dena.

Lan Hitzarmen berriak hurrengoak eduki beharko lituzke: soldata aldarrikapenak, KPI kopuruak aipatuz. Gure lan baldintzak ezin dira egon finantzazio publikoaren egoeraren menpe; horrek, besteen menpe egotea dakar. Lan Hitzarmenak ultraaktibitatea izan beharko luke.

Erronka horretarako, ezinbestekoa da ekonomikoki eta politiko-

ki autonomoa den sindikatu baten babesa. Argiak eta garbiak dira ELAren kontuak. Sindikatuaren diru-sarreraren %91 afiliatuek jartzen dute. Hau da sindikatu batek bere independentizari eusteko modu bakarra. ELAren indarra gure proiektuan eta geuk hartutako erabakietan datza; ez daukagu inolako menpekotasun politikorik. Beste inork ezin du gauza bera esan...



www.ela-sindikatu.org

Afiliazio orria

Hoja de afiliación

**NANEIZ:**

DNI/NIE

Emakumezkoa / Mujer

Gizonezkoa / Hombre

**Lantokia:**

Empresa

**Izena:**

Nombre

**G.S.ko kotizazio kontu kodea:**

Código cuenta cotización S.S.

**1.abizena:**

1º apellido

**Helbidea:**

Domicilio

**2.abizena:**

2º apellido

**Herria:**

Localidad

**Jaiotze herrialdea:**

Lugar de nacimiento

**Jaiotze data:**

Fecha nacimiento

**Lanbidea:**

Profesión

**Kategoria**

Categoría

**Herria:**

Localidad

**P.K.:**

C.P.

**Lan-hitzarmena**

Convenio

**Helbidea:**

Dirección

**Banku edo Aurrezki Kutxa:**

Banco o Caja de Ahorros

**Herrialdea:**

Provincia

**IBAN zenbakia (Banku kontua):**

Nº IBAN (Cuenta bancaria):

**Telefona**

Teléfono

**Mugikorra:**

Móvil

**Data / Fecha**

**Sinadura / Firma** →

**E-posta:**

E-mail